



SERIEEN KONTSUMOA

15. Txostena
2021eko otsaila

SERIEAK

Hilabete honetan, Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei ikusi duten azken ikus-entzunezkoari buruz galdetzeaz gain, serieak ikusteko dituzten ohiturei, pertzepzioei eta iritziei buruz ere galdetu zaie. Txosten honetan inkestan batutako datu eta emaitzak jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko otsailaren 22tik martxoaren 1era bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da ikus-entzunezkoen kontsumoari eta serieak ikusteko ohiturei buruzkoa. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 897 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

2. Ikusitako azken edukiak

Lehenengo eta behin, ikusi dituzten azken ikus-entzunezkoen eduki motengatik galdetu zaie. Aipatuena izan diren eduki motak hiru dira: entretenimenduzkoak (% 77,0k), albistegiak (% 72k) eta fikziozkoak (% 70,6k). Inkestatuen erdiek musika saioak aipatu dituzte (% 52,0k), eta %30,7k kirolak. Gutxien aipatu diren edukiak honakoak dira: aktualitateko erreportajeak ala dokumentalak (% 15,6k) eta dokumentalak orokorrean (% 12,6k).


1. Irudia – Azken 2-3 egunetan ikusi duzu mota honetako edukirik? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Ikus-entzunezko edukiak ikusteko erabili ohi diren plataformen artean hiru nabarmentzen dira: Youtube (% 78,0k aipatua), Instagram (% 71,2) eta streaming plataformak (% 70,5). Segidan telebista tradizionala dator, inkestatuen % 27,2k aipatuta. Nahieran telebista zerbitzuak eta bideojokoak askoz gutxiago erabiltzen dira: %13,2k eta %6,9k hurrenez hurren.

2. Irudia – Bideoak, programak, reelak, storiak eta horrelako ikus-entzunezkoak ikusteko zer sistema erabiltzen duzu gehien? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +


3. Serieei buruz

Inkesta honetan bereziki serieen gaia landu da: serieak ikusteko ohiturak, serieekiko iritzia eta ikusi diren serie batzuei buruzko galdera zehatzak.

Hasteko, baieztapen batzuk aurkeztu zaizkie inkestatuei eta beren iritzia jaso da bakoitzaren inguruan. Hurrengo taulan aurkezten dira adostasunaren arabera antolatuta¹.

Inkestatuen % 77,4 oso alde dago “entretengarriak dira” adierazpenarekin. Esaldi hori da iritzi homogeen edo bateratuena duena, ia erantzule guztiak oso alde edo alde baitaude. Segidan, % 64,5 ados edo oso ados dago “nolakoak diren jakiteko hasten dela ikusten eta gero engantxatu egiten dela”-ko ideiarekin. Hirugarren lekuan, lagunengomendioen bidez ikusten hasten direnaren adierazpenak jaso du babes gehien, baina iritzi aniztasuna handiagoa da dagoeneko. Kontrako aldean, kontraktasun handiena jaso duen esaldia honakoa da: “modan dauden serieak txarrak izaten dira” (-12,2ko indizea).

3. Irudia – Zergatik ikusten dituzu serieak? Esan mesedez noraino zauden ados hemen esaten diren esaldiekin.




Iturria: Ikusiker Applika +

¹ Indize bat atera da erabilera maiztasun guztiak ordenatzeko, honako ariketa matematikoa eginez: $(askotan + batzuetan / 2) - (gutzitan / 2 + inoiz ez)$. 100eko indizeak adieraziko luke guztiak erabat ados daudela adierazpenarekin, eta alderantziz, -100ekoak denak erabat kontra daudela.


Serieak ikusteko ohiturei dagokienez, asteburuetan joera handiagoa adierazten da serieak ikusteko astegunetan baino, ordu tarte guztietan. Bi kasuetan, gaua da inkestatu gehienek erabiltzen duen denbora-tartea ikus-entzunezko eduki hauek ikusteko (asteburuetan % 81,6k eta astegunetan % 68,4k) eta segidan arratsaldea dator, erditsuek aipatzen dutena. Goizetan nabari da desberdintasunik handiena astegun eta astebukaera artean: astegunetan % 8,4k bakarrik erabili ohi du goiza serieak ikusteko, eta astebukaeran ia erdiek adierazten dute ikusten dituztela (% 45ek).

4. Irudia – Noiz ikusten dituzu serieak? (%)



Serie bat ikusten duten aldi bakoitzean pasatzen den denborari dagokionez ere, asteburuetan denbora-tarte luzeagoa izaten dela nabaritzen da. Astegunetan, % 82,6ak 0-2 ordu bitarte igarotzen ditu serieak ikusten, asteburuetan % 75,4k 1-4 ordu bitarte igarotzen dituelarik.


5. Irudia – Jartzen zarenean serie bat ikusten, normalean zenbat denbora egoten zara?



Iturria: Ikusiker Applika +

Aurrekotik ondoriozta daitekeen moduan, asteburuetan kapitulu kopuru handiagoa ikusten da astegunetan baino: aste tartean % 82,9k dio kapitulu bat edo bi ikusi ohi dituela, eta astebukaeran % 82,8k kapitulu batetik laura bitartean ikusten dituela, horietatik % 44,9k hiru edo lau kapitulu ikusten dituzte.


6. Irudia – Serie bat ikusten jartzen zarenean, normalean zenbat kapitulu ikusten dituzu segidan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Bestetik, ikusi duten azken serieari buruz galdetuta, gehienek plataforma digitalen baten bidez ikusi dute (% 76,2k), eta besteek webguneren baten (% 14,7k). Oro har ikus-entzunezko edukiak ikusteko ohikoena den plataforma, Youtube, % 2,2k bakarrik aipatu du azkena ikusitako serieira iristeko erabilitako plataforma moduan.


7. Irudia – Ikusi duzun azken serie hori non ikusi duzu?



Iturria: Ikusiker Applika +

Erabilitako aparatuari dagokionez, ia erdiek ordenagailu eramangarria ikusi dute (%44,2k), ondoren telebista aparailua aipatzen da (% 27,2k) eta hirugarren lekuan telefono mugikorra dago (% 13,6k aipatua). Tableta da laugarren aparatu ohikoena (% 9,9k esana), eta bosgarren lekuan mahaigaineko ordenagailua dago (% 4k esana).


8. Irudia – Eta zein aparatu erabili duzu serie hori ikusteko?



Iturria: Ikusiker Applika +

Ikusi duten azken serieari 0 eta 5 bitarteko eskalan % 82,1ek puntuaziorik altuena jarriko liokete, laukoa edo bostekoa. Bestalde, 0 eta 1 puntuazioa aukeratu dutenik ez dago ia (sei kasu guztira).


9. Irudia – Nolako nota jarriko zenioke ikusi duzun azken serie horri? (0-Oso txarra eta 5-Oso ona)



Iturria: Ikusiker Applika +

Iritzi hori defendatzeko, honako ideiak izan dira babes handiena jaso dutenak: “istorioa interesgarria da” (% 70,9k hautatua) eta “pertsonaiak gustatzen zaizkit” (% 55,9k esana). % 51k dio atal gehiago ikusteko gogoarekin gelditu dela.


10. Irudia – Zergatik jarri diozu nota hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Amaitzeko, serie zerrenda bat proposatu zaie, aukeretatik kapituluren bat ikusi dituztenak hautatu ditzaten. Gehien aipatu diren bost serieak honakoak dira: “La casa de papel”, “Élite”, “Sex education”, “Merlí” eta “Friends”. Euskal ikus-entzunezkoen artean, % 12,7ak Altsasu ikusi duela adierazi du, Alardea % 5,8ak, Ihesaldia % 4,4k eta Hondar Ahoak % 4,1ek.

11. Irudia – Ikusitako serieak



Iturria: Ikusiker Aplikazioa +